

UDALAREN OSOKO BILKURA

2009ko otsailaren 19ko ohiko bilera

BERTARATU DIRENAK

ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.

ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CUIEL jn.
EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.
EAJ-PNV.- M^a CARMEN URBIETA GONZALEZ and.
EAJ-PNV.- JON PELI LAZKANO ALZAGA jn.
EAJ-PNV.- JUAN CARLOS IBARRA ARETXABAETA jn.
EAJ-PNV.- AINARA GUZMÁN URRUTIA and.
PSE-EE.- ELSA LOPEZ DE TORRE CAMPO and.
PSE-EE.- LUIS MARIA PEREZ PEREZ jn.
PSE-EE.- PILAR GRADOS GARCIA and.
PSE-EE.- J. ALFONSO LOPEZ AREVALILLO jn.
PSE-EE.- NEKANE JIMÉNEZ FERNANDEZ and.
PSE-EE.- JUAN CARLOS MARTINEZ LLAMAZARES jn.
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.
PP.- FERNANDO PINTO PALACIOS jn.
EB-B.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SÁINZ jn.
EB-B.- ISABEL GARCÍA GARCÍA and.

EZ DA BERTARATU:

EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.

EUSKARA ITZULTZAILEA

IDOIA NOBLE and.

KONTU-HARTZAILEA

EIDER SARRIÁ GUTIERREZ and.

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA

JAVIER BOLINAGA LEKUE jn.

Leioako udaletxean, bi mila eta bederatziko otsailaren hemeretziko arratsaldeko zazpiak eta hamar minutu direla, elizate honetako Udalaren Osoko Bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jauna**, izan da bileraren burua eta **behin-behineko idazkariak, JAVIER BOLINAGA LEKUE jaunak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta izatez zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

I.- ERABAKITZEKOAK

1.- 2008ko URRIAREN 30eko OHIKO OSOKO BILKURAREN, 2008ko AZAROAREN 27ko OHIKO OSOKO BILKURAREN, 2009ko URTARRILAREN 20ko APARTEKO ETA PREMIAZKO OSOKO BILKURAREN ETA 2009ko OTSAILAREN 3ko APARTEKO OSOKO BILKURAREN AKTAK ONESTEA: Izenburuan aipatutako bileren aktak onetsi gabe zeudela aipatu da; beraz, Udalaren Osoko Bilkurak onesteko jarri dira.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkurak **aho batez onetsi ditu** 2008ko urriaren 30eko ohiko osoko bilkuraren, 2008ko azaroaren 27ko ohiko osoko bilkuraren, 2009ko urtarrilaren 20ko aparteko eta premiazko osoko bilkuraren eta 2009ko otsailaren 3ko aparteko osoko bilkuraren aktak.

2.- HAPO-REN ALDAKETA HASIERAN ONESTEA, TITULARTASUN PUBLIKOKO EKIPAMENDUETAN MERKATARITZA ERABILERAK BATERAGARRI EGITEKO ARAUDIARI DAGOKIOEZ. Tokiko Gobernu Batzarraren 2009ko otsailaren 10eko 49. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren Osoko Bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2009ko otsailaren 3an hartu zuen 6. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Udal Bulego Teknikoak Titulartasun publikoko ekipamenduetan merkataritza erabilerak bateragarri egiteari dagokionez Plan Orokorren ordenantzak zati baten aldatzea komeni den aztertzeko idatzi duen memoria irakurri da.

Hirigintzako ohiko jardunean sarritan sartzen dira merkataritza erabilerak ekipamendu publikoko eraikinetan. Ohitura hori, lehenengo eta behin, ekipamenduaren dena delako erabilera (kirol, hezkuntza, etab.) merkataritza erabilerarekin osatzeko egiten da, beharrezkoa baita instalazioak behar bezala funtzionatzeko. Beste batzuetan, ekipamendu publikoa merkataritza kale batean egotearen ondorioz egoten dira bertan merkataritza erabilerak, ez baita komeni kaleak duen merkataritza izaera galtzea ekipamenduaren eraikinean; horrela, kalearen merkataritza izaera mantendu ohi da beheko solairuan.

Plan Orokorrek txikizkako merkataritza erabileraren tolerantziari buruzko 6.3.25 artikuluan aipatzen du egoera hori. Honakoa dio, hitzez hitz:

“6.3.25. artikulua. Txikizkako merkataritza erabileraren tolerantzia.

1. *Txikizkako merkataritzakoak izan eta ekipamenduzko eraikinetan kokaturik dauden erabilerek beren horretan iraun ahal izango dute, eta are beren jarduera aldatu ere, inolako mugarik gabe, baldin eta horrek haien azalera gehitzea ez badakar.*
2. *Dagoen eraikina ordeztzen bada, gaurko ekipamendua eraberritu edo ekipamenduzko erabilera berri batez ordezkatzeko delako, eraikin berriak merkataritzako lokalak eduki ahal izango ditu beheko solairuan. Lokal horien azalera lehen egon eta lizentzia jaso aurretik behar bezala frogaturik geratu zen azaleraren parekoa izango da.*
3. *Ekipamenduzko eraikin berrietan, toleratu egingo da txikizkako merkataritza erabilera, behe solairuetan kokaturiko lokaletan, baldin eta lokal horiek honako baldintza hauek betetzen badituzte:*
 - *Beren jabetzaren titulartasuna eta ekipamenduarena bat bera izan behar da, orubearen erabileraren eta jabetzaren arteko bete-beteko korrespondentzia bermatzeko xedez.*
 - *Merkataritzako lokalen azalera eraikia 10 metro sakoneraren barruan geratu behar da, fatxadaren lerrokaduraren parean neurtuta beti.*
 - *Lokalen fatxadaren garapen linealak ez du fatxadako lerrokaduraren luzeraren % 60tik gorakoa izaterik, kale-tarte bakoitzean neurtua.*

Zehaztutako hiru baldintza horiek aplikagarriak izango zaizkie, bakarrik, Plan Orokorrek zehazten duen kale-lerrokadurarekin bat datozen eraikin edo fatxada-tarteei, beti ere, noski, hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizakorrean kokaturik egon behar direla. Ez zaizkie inoiz ere aplikagarriak izango lurzatien barrualdean kokaturiko eraikin edo fatxada-tarteei.”

Erregulazio hori ez dator bat Leioan dauden edo proiektatu diren ekipamendu eraikinetako baldintzekin eta, horrenbestez, araudi hori berrikusi behar da, ekipamenduen behar bezalako funtzionamendua berma dezan txikizkako merkataritza erabilerak egotearen bitartez, bai pilatuak eta bai pilatu gabeak (Plan Orokorraren Ordenantzetako 6.3.42 artikuluko 2 eta 3. ataletan daude definituta), herritarren aisia, kultura aberastasuna, hezkuntza eta osasuna helburu duten instalazio publikoen erabilera sustatuko dutenak.

Beste alde batetik, merkataritza askatasunaren printzipioak aplikatuz, komenigarritzat jo da Plan Orokorraren Ordenantzetako 6.3.45 artikuluko 1. atalean ezarritako debekua kentzea, bertan honakoa adierazten dela: *“Debeku dira, egoitzazko hiri aldeetan, saltzeko azalera bostehun (500) metro karratutik gora izango dituzten hipermerkatuak”*.

Hori guztia dela eta, 6.3.25 artikulua testua aldatzea proposatu da, hemendik aurrera testu hau izan dezan, hitzez hitz:

“6.3.25. artikulua. Txikizkako merkataritza erabileraren tolerantzia titulartasun publikoko ekipamendu eraikinetan.

1. *Txikizkako merkataritza-erabilerak (bai pilatuak eta bai pilatu gabeak) dituzten lokalak ipini ahal izango dira titulartasun publikoko ekipamenduak dituzten eraikinetan, betiere Udalak uste badu erabilera horiek on egiten diela dena delako ekipamenduaren erabilerari edo kaleari.*
2. *Merkataritza erabilera duten lokalak kudeatzean kontuan izango da jabetzaren titulartasuna eta ekipamenduarena bat bera izan beharko dela beti.*
3. *Instalazioetan dauden merkataritza lokalen eraikitako azalera ez da jarduerarako erabiltzen den azalaren % 25 baino gehiagokoa izango eta, beraz, eraikinak izan ditzakeen garajeak ehuneko horretatik kanpo geratuko dira. Merkataritza lokalak eraikinaren edozein solairutan egon ahal izango dira, eta ekipamenduaren barrutik zein herri bidetik sartu ahal izango da horietara.*
4. *Ekipamendu erabilerak osatzen dituzten merkataritza lokalen eraikitako azalera ez da kontuan izango hirigintzako aprobetxamendua zenbatzean.”*

Era berean, kendu egingo da Plan Orokorraren Ordenantzetako 6.3.45 artikuluko 1. atala, egoitzazko hiri aldeetan saltzeko azalera bostehun metro karratu edo gehiago dituzten hipermerkatuak instalatzeko debekua kentzearen.

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez hasieran onestea plangintzaren aldaketa hau.
- Hasieran onetsi ondoren, espedientea jendaurrean agertuko da hilabeteko epean, BAO-n eta egunkarietan iragarkiak argitaratuz.
- Antolamendu xehatuari buruzko aldaketa dela aintzat hartuko da. Horren ondorioz, ez da beharrezkoa izango erabaki hau Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari bidaltzea.

Irizpen hau hartu da, PSE-EE-PSOeko ordezkariak abstenitu badira ere. Izan ere, Osoko Bilkuraren erabakian definituko dute euren iritzia.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako proposamenaren alde agertu da eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK** berau onesteko **dekretua eman du**.

EZTABAIDA:

PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillo jaunak esandakoaren laburpena:

Gure taldeak kautelazko abstentzioa eman zuen gaia Hirigintza Batzordean aztertu zenean, duen garrantzia kontuan hartuta egiaztatu nahi genuelako eta, azkenik, Udal Bulego Teknikoak azaldutako aldaketa onetsiko dugula erabaki dugu. Hala ere, alderdi batzuk zehaztu nahiko genituzke.

Badakigu Plangintzako Aholku Batzordearen Araudia hirigintza-planak egin, tramitatu eta onesteko prozedurei buruzko kontsulta eta eztabaidak egiteko sortu zela, eta gaur aztertzeko dagoen antolamendu xehatuko partaidetza bazterten duela, beste udalerrri batzuek (esaterako Bilbok) ez bezala. Hala ere, kasu honetan, merkatarien elkarteari zuzenean eragiten dionean — Batzorde barruan dagoela, talde honen erabakiaren bitartez—, uste dugu horixe erabili behar izan zela —eratzeko tramitazioa amaituta egon ez arren—, herritarrek gai honetan parte hartzeko bidea izan zedin.

Azkenik, gaiaren funtsa Udondoko bulebarreko ekonomia indarberritzen laguntzea eta Pinosoloko kiroldegia finantzatzea bada, gaur egungo krisi egoera eta duen garrantzi ekonomikoa ikusita, aurreikuspen pesimistenak baino txarragoa izateko bidean dagoena, egin egingo dugu, baina udal proiektuak ordaintzeko finantziario pribatua erabili beharko den esan beharra dago, nahiz eta gure taldeak aldeko botoa emango duela adierazi.

EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak euskaraz esandakoaren laburpena:

Eskerrik asko aldeko botoengatik, baina zenbait gauza zehaztu nahi ditut.

Plangintzako Aholku Batzordea, BAOn behar bezala argitaratu den arren, oraindik ez da eratu. Izan ere, tramite batzuk egin gabe daude oraindik, esaterako bertan dauden erakundeek egin beharrekoak eta, beste alde batetik, espediente hau ez dago Batzorde horrek aztertu behar duen eremuaren barruan.

Batzordean azaldu nuen bezala, Plan Orokorren araudiarekin aurretiaz ere onetsi zitezkeen zerbait onetsi nahi da, nahiz eta orain egin nahi duguna ekipamenduetan merkataritza erabilerak modu eraginkorragoan ezarri ahal izateko baldintzak aldatzea den.

Merkataritza erabilerak ekipamendu publikoetan sartzearen sorrera, gure eremuan, 1983ko uholdeetan eta Arriaga antzokian ezar dezakegu. Uholdeen aurretik antzokian taberna bat, Viajes Ecuador bidaia-agentziaren bulego bat eta beste batzuk zeuden, baina uholdeen ondoren eraikina konpondu zenean merkataritza erabilerak kendu ziren, eta ekipamenduari bizitasuna kendu zitzaioela ikusi zen.

Leioako HAPO egin zenean merkataritza erabileren aukera azaldu zen ekipamendu orokorretan, baina orain uste dugu araubidea aldatu egin behar dela, malgutasun handiagoa egon dadin erabilerari horiek ezartzeko orduan eta, adibidez, ez daitezkeen nahitaz beheko solairuan ezarri behar.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Ohar batzuk egingo dizkiot Jesús Bilbao Curiel jaunak oraintxe esan duenari. Lehenengoz esan nahi dut EAJ-PNVko bozeramaileak esan duen bezala ez dela araua *ex novo* sortuko, baizik eta aurretiaz zegoen arau bat moldatuko dela, gaur egungo egoerari egokitzeko.

Moldaketa horrekin alderdi guztien, herritar gehien eta tokiko merkatarien eskaera bete nahi da, hau da: hiriko merkataritza-guneak sor daitezela, bezeroen eta merkatarien arteko hurbiltasuna handiagoa izatea eragiteko. Horrela, pentsa dezakegu jende ugari biltzen den lekuetan, esaterako Sakonetako kiroldegian, kontserbatorioan, etab. merkataritza-zerbitzuak ipiniz gero, bizimodu errazagoa izango lukeela jende askok. Izan ere, kirola egitera edo seme-alabak eraman edo hartzera doazenek, erosketak egin edo ile-apaindegira joateko aukera izango lukete. Hau da, ohiko kontsumo eskariak beteko lirateke eta, bide batez, bizitasuna emango litzaioke hirigune horri.

Azkenik azpimarratu nahi dut aldaketa hori Aholku Batzordea sortzearekin batera doala, nahiz eta ez dagoen behin betiko onetsita. Esan behar dut harreman informalak izan direla merkatarien elkartearekin, eta uste dudala ez dagoela inolako eragozpenik elkartearekin batzar ofizialak eta formalagoak izateko, gai honi buruz duten iritzia jakin dezagun. Konpromisoa hartuko dut tramite hori betetzeko.

Eztabaidaren ondoren gaia bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkurak **aho batez onetsi du** behin betiko onetsiko dela HAPOnen aldaketa, titulartasun publikoko ekipamenduetan merkataritza erabilerak bateragarri egiteko araudiari dagokionez. Espedientea jendaurrean azaldu beharko da hilabeteko epean, iragarkiak argitaratuz BAOn eta egunkarietan. Ez da beharrezkoa izango Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari tramitatzea, antolamendu xehatuari buruzko aldaketa delako.

II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA

3.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK, 2008-12-25etik 2009-02-13ra. Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatze kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkatezak emandako dekretuen kopiak azter ditzaten.

Udalaren Osoko Bilkura jakinaren gainean geratu eta ados egon da.

4.- PRESAZKO MOZIOAK:

Atal honetan ez da presazko moziorik aurkeztu.

5.- ESKAERA ETA GALDERAK.

Ez da eskaera ez galderarik egin.

Eta arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateza-udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

O.E.
ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA,